



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailak 5

Vitoria-Gasteiz, 5 de febrero de 2019

Lehendakaritza

GOBERNUAK 2018RAKO BIZIKIDETZAKO ETA GIZA ESKUBIDEETAKO PLANEAN AURREIKUSITAKO EKIMENEN BETEARAZPEN-MAILA ALTUA IZAN DELA EGIAZTATU DU

- **Gobernu Kontseiluak, gaur, 2018an Planak izan duen kudeaketaren eta betearazpenaren balantzea eta aurtengo urterako erronka nagusiak ezagutu ditu**

Gobernu Kontseiluak gaur izan du Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Bizikidetzako eta Giza Eskubideetako Planaren segimenduaren urteko txostenaren berri; bertan, 2018an bertan jaso diren ekimenen kudeaketaren eta betearazpenaren balantzea jaso da, bai eta 2019rako erronka nagusiak ere.

Zehazki, Planaren 15 ekimenetatik, 12tan 2018rako aurreikusitako konpromisoak erabat bete dira, % 100ean. Beste hiru ekimenetan konpromisoak % 80an bete dira, egutegiak beste erakunde edo instituzio batzuekin egokitu behar izan direlako. Nabarmendu behar da % 100ean bete diren ekintza guztiak direla zuzenean Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritzaren ekintzaren mendekoak direnak. Hori horrela, lanaren betetze-mailak Eusko Jaurlaritzaren balorazio ona merezi du.

2019RAKO ERRONKA NAGUSIAK

2019. urte honetarako, eta euskal egoera soziopolitiko hartuta, Planaren jarduera-planak zehaztasunez definitzen ditu egin beharreko jarduketak, honako erronka nagusi hauei erantzuteko:

1. **ETAren alde bakarreko desegite eraginkorra eta behin betikoa gauzatu ondoren, jardun-ardatz estrategikoa da, **zailtasunak eta erresistentziak badaude ere**, terrorismoak eta indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak ekarri duen kaltearen justiziarik ezari buruzko **hausnarketa kritikoaren prozesu partekatua sustatzen jarraitzea**.**
2. **Terrorismoaren biktimekin elkarrizketan, elkarlanean eta akordioetan jarduteko eremuetan sakontzen jarraitzea.**
3. **Memoriaren politika publikoen sustapenean ahalik eta adostasun handiena sustatzen jarraitzea**, Gogora institutuaren eta institutu horren Zuzendaritza Kontseiluaren jarduera-programen bidez.
4. **12/2016 Legea garatzea, giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa**, bertako artikuluetan Espainiako Gobernuarekin konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioari uko egiteko adostutako aldaketak Eusko Legebiltzarrean onetsi ondoren.

5. Espainiako Gobernuarekin, Frantziako Gobernuarekin eta Legebiltzarreko taldeekin akordioak sustatzea, espetxe-politikari beste orientazio bat eman ahal izateko, hurbiltzeari eta erantzun humanitarioei dagokienez, bai eta gizarteratzeko politika aktiboak legalki garatu ahal izateko oinarriak adosteko ere.

6. Bizikidetzan agertzen doazen erronkei erantzuteko ekimenak abian jartzea. Besteak beste:

- Errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitarioari erantzutea.
- Migrazioarako Euskal Gizarte Ituna sustatzea.
- Garapenerako Lankidetzaren 2018-2021 Zuzendaritza Plana garatzea.
- Kulturako Zentroen Legea onestea, Erljioen arteko Euskal Kontseilua sortzea.
- Eusko Jaurlaritzak euskal erkidego islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko duen jarduketaren programaren aurreikuspenak abian jartzea.

7. Bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza eta kultura sustatzeko eremuan 2019rako aurreikusitako jarduketak garatzea. Hezkuntza-eremuan, beste bi aurreikuspen nabarmendu behar dira:

- Indarkeriazko erradikalizazioa prebenitzeko hezkuntza-modulua gidatzea.
- *Mundua eskolan–Eskola Munduan* izeneko esku-hartze pedagogikoko proposamena aurkeztea, elkartasunera bideratuta hezteko, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin bat etorritik.

IBILBIDE-ORRIA

Bakearen eta bizikidetzaren ikuspegitik, 2018ko gertakari nagusia ETaren alde bakarreko desegite eraginkorra eta behin betikoa izan da. Horrekin batera, presoak urruntzeko espetxe-politikan aldaketa hasi berri dela nabarmendu behar da, bai Frantziako Gobernuaren aldetik, bai Espainiako Gobernuaren aldetik.

Hori horrela, gaur aurkeztu den txostenak bere egiten ditu Iñigo Urkullu Lehendakariak eta Uxue Barkos Nafarroako presidentek ETaren desegitea egiaztatu ondoren elkarrekin jendaurrean eginiko Bertizko Adierazpenaren ondorioak, horiek duten garrantziagatik eta indarragatik.

Dokumentu horretan, ibilbide-orri gisa ezartzen ziren bi denbora-esparru:

Epe laburrera eman beharreko urratsak

Zuzenean lotuta daude ETaren kapitulua behin betiko ixtearekin eta bi helburutan islatzen dira:

-Hausnarketa kritikoa. ETaren indarkeria esplizituki jasota, indar politiko guztiek lehen aldiz partekatuko duten lehenaldiari buruzko hausnarketa kritikoa globala.

-Espetxeetako politika. Espetxe-politika testuinguru berrira egokitzeko adostasuna, indar politiko guztiak batuko dituena.

Bi adostasun horiek epe laburrera lortzeak oztopoak alde batera utzi eta epe ertaineko helburu estrategikoetan aurrera egiteko baldintza egokiak eta aproposak eragiten ditu.

Epe ertainera eman beharreko urratsak

Zuzenean daude lotuta bizikidetzaren normalizazio estrategikoarekin eta Gizarte Topaketarekin. Hiru helburu nagusi lortzera bideratzen dira:

-Memoria. Memoria plurala eta partekatua finkatzea, giza eskubideen urraketaren arloan gertatu dena argitzea oinarri hartuta.

-Biktimak. Terrorismoaren, indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan biktima guztiei errekonozimendua eta erreparazioa emateko politika publikoak sustatzea.

-Hezkuntza. Etorkizunerako eta etorkizunak dakartzan erronka berrietarako prebentziozkoa izango den bizikidetzarako eta giza eskubideetarako hezkuntza eta kultura sustatzea.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK SINDIKATUEKIN ADOSTUTAKO 2020RA BITARTEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKOENTZAKO ERRETIRO PARTZIALA ONETSI DU

- Akordio horri esker, 700 pertsonak aurretiazko erretiroa hartu ahalko dute eta beste 700 euskal administrazio publikoan txanda-kontratuekin sartuko dira

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Euskal Autonomia Erkidegoko lan-kontratudun langile finkoentzako erretiro partzialaren plana*” onetsi du; planak 2019. urte honetan sortzen diren erretiro partzial berri guztiak txanda-kontratu berriekin lotzen ditu. Horrela, UGTrekin eta CCOOrekin sinatutako akordioa gauzatuko da; horiek 2018ko azaroaren 8an eginiko “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokor*”rean ordezkariak duten lau zentral sindikaletako bi dira.

Akordioak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak, 2020ko abenduaren 31ra arte. Lau kolektibotako 700 pertsona baino gehiagorengan du eragina:

- **OSASUNA:** “Osakidetzako lan-kontratudun langileak” kolektiboko 465 pertsona
- **HEZKUNTZA:** “Hezkuntza Saileko irakasle diren eta irakasle ez diren lan-kontratudun langileak” kolektiboko 130 pertsona
- **AGE:** “administrazio orokorreko eta bere erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileak” kolektiboko 55 pertsona
- **SEGURTASUNA:** “Segurtasun Saileko lan-kontratudun langileak” kolektiboko 45 pertsona
- **JUSTIZIA:** “Justizia Saileko lan-kontratudun langileak” kolektiboko 5 pertsona

KONPROMISOA ENPLEGU PUBLIKOAREKIN

Eusko Jaurlaritzak oso positiboki baloratu du akordio hau, gutxienez bi urtez kalitateko lanpostuetan 700 pertsona baino gehiago kontratatzea ekarriko baitu. Gainera, akordio horren bidez, Gobernuak langile publikoen borondatezko erretiro partzialetarako bide ematen du eta pertsona berriek prestakuntza jasotzeko eta plantillak gaztetzeko aukera ematen du.

Ogasun eta Ekonomia

GOBERNU KONTSEILUAK 2019RAKO PREMIAZKO AURREKONTU NEURRIEI BURUZKO HIRU LEGE PROIEKTU ONETSI DITU

Gobernu Kontseiluak, 2019rako Premiazko Aurrekontu Neurriei buruzko irakurketa bakarreko hiru Lege Proiektu onetsi ditu gaur. Lege Proiektu horiek 2018ko Aurrekontu Orokorren Luzapena osatuko dute, behar bezala aplikatu ahal izateko lege maila izan behar duten neurriekin.

Eusko Jaurlaritzak eman duen erantzun hori, Legearekin zerikusirik ez duten zergatiak direla eta, oposizioko taldeek joan den astean aurkeztu zen Lege Proiektuan aurreikusitako neurriak aurrera ateratzea ezinezko bilakatu ahal izatearen arrisku larriaren ondorioz eman da.

Izan ere, gaur goizean bertan, Eusko Jaurlaritzak, EH Bilduk eskatuta Eusko Legebiltzarrak egin duen Premiazko Aurrekontu Neurrien Lege Proiektuaren legezketasunari buruzko txostena jaso du. Bertan, erabili dugun prozeduraren alde egiten da. Txosten horrek, inolako zalantzarik gabe, erabilitako formula erabat legezkoa dela eta Eusko Legebiltzarraren arautegian aurreikusita dagoela jasotzen du.

Hala ere, borondate politiko falta dela eta, Euskadiko 150.000 familia baino gehiagori onura zuzenak ekarriko dizkieten neurrietara zuzendutako 250 milioi euroak gauzatu ezin ahal izateko arrisku txikiena ere ez du hartuko Eusko Jaurlaritzak.

Hiru lege proiektuak hauek dira:

Ordainketak, Eusko Legebiltzarra

Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden langileen urteko ordainketa osoek %2,25eko igoera izango dute. Neurri horrek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak. Halaber, Jaurlaritzari ehuneko hori eguneratzeko baimena ematen zaio, oinarrizko legediak igoera handiagoetarako aukera ematen badu.

Eusko Legebiltzarrak 2019rako izango duen aurrekontu zuzkidurari dagokionez, 31.100.000 eurotan geratuko da (luzapenak 30.250.000 euro jasotzen zituen).

Hezkuntza: Hezkuntzako Kontzertuak eta EHU/UPV

Bigarren Lege Proiektuak, 2019ko aurrekontu proiektuan dagoeneko aurreikusita zegoen ikastetxe kontzertatuetako moduluetakoko langileen osagaiak

eguneratzea jasotzen du. Osagai horiek, Hezkuntza Sailaren esku dauden unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoetako langileen ordainketetarako ezarritako ehuneko berean handituko dira, hau da, %2,25a. Horrez gain, ehuneko hori, ekitaldian zehar sistema publikoan ari diren irakasleen ordainketak igo daitezkeen zenbateko berean igotzeko aukera ere aurreikusten da.

Euskal Herriko Unibertsitatearen zuzkidurak ere gora egingo du, 314.040.099 euro izango baititu, 2018ko luzapenean aurreikusitakoa baino 10.045.915 euro gehiago.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta kontziliaziorako laguntzak

Bukatzeko, hirugarren Lege Proiektua DSBE-RGIari buruzkoa da. Joan den astean aurkeztu zenean iragarri zen bezala, modalitate guztietan, %3,5eko igoera izango du, 2018an jasotako zenbatekoekin alderatuta. Hala ere, Errenta hori jasotzen duten pentsiodunen kasuan, igoeraren ehunekoa %4,5era helduko da.

Lege Proiektuak, familia eta lan bizitzako kontziliaziorako laguntzak %5 igotzea ere jasotzen du, seigarren xedapen gehigarria baliogabetzearen ondorioz.

Ogasun eta Ekonomia

EUSKADIKO AURREKONTUEN ARAUDIAN AURREIKUSITAKO 2018RAKO ZORPETZE-ERAGIKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA

Gobernu Kontseiluak baimena eman du zorpetze-eragiketak egiteko, 2019rako luzapen-erregimenean, ekitaldi honetarako 2018. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen Legeak zorpetzeari dagokionez onetsitakoari eta aurreikusitakoari jarraikiz.

2018aren itxierako zorpetze-eragiketak eta 2019an egingo diren amortizazioak kontuan hartuta, ekitaldi honetan formalizatuko den gehieneko zenbatekoa 1.260 milioi euro da.

Ekitaldi honetan formalizatzen den zorpetzeak bermatu beharko du 2019rako adostutako zor publikoaren helburua betetzen dela. 2018ko abenduaren 31n, zor publikoak 5,15 urteko batez besteko bizitza du eta % 1,83ko batez besteko kostua, eta BPGd-aren % 13,5 da. Horrela, lasai betetzen dira Estatuarekin adostutako 2018-2020rako aurrekontu-egonkortasunari eta zor publikoari buruzko helburuak, BPGd-aren % 14,2an ezarri baitziren.

Dekretua onetsi eta argitaratu ondoren, ekitaldiko eragiketak negoziatzen eta egiten hasiko da, eta, azken urteotan bezala, guztira baimendutako kopuru osoa baino txikiagoa izatea aurreikusten da.

Hezkuntza

LANKIDETZA HITZARMENA, EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREKIN BATERA OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA FINANTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimena eman du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Hezkuntza Sailaren eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko. Hitzarmen honen bidez, 2014-2017 aldian Oinarrizko Lanbide Heziketa ezartzea Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatzeko prozedura egituratzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoari Oinarrizko Lanbide Heziketa zikloak ezartzeko gastuen %50aren kofinantziakoa da, Europako Gizarte Funtsarekin batera. Gastu horiek 31.641.668 eurokoak izan dira 2014-2017 urteetan, beraz, jasotzea aurreikusirik kopurua 15.820.834 eurokoa da. Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa da Europako Gizarte Funtsak Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntza Programaren 3. Ardatzean jasotzen dituen laguntzak kudeatzeaz arduratzen den erakundea.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK TRATAMENDUAK BETETZEKO DEKRETUA EGOKITU DU, KOLEKTIBO AHULENTZAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEI EUSTEKO

Gobernu Kontseiluak, gaur, 447/2013 Dekretua aldatzeko dekretua onetsi du. 447/2013 Dekretuaren bidez, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira. Aldaketa hori onuradunen zehaztapena Estatuko arauketa berrira egokitzeko eta, horrela, urtero 2013tik ematen dituen laguntza ekonomikoen ildoari eutsi ahal izateko egin da.

2017ko azaroan, Eusko Jaurlaritzak Dekretuaren beraren lehen aldaketa onetsi zuen, onuradunen bi kolektibo berri sartzeko: batetik, langabeziako legezko egoeran egon eta langabezia-prestazioaren hartzaile direnak, eta, bestetik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) hartzaile direnak, beren lan-errenten osagarri gisa. Bi kasuetan, diru-sarrerek ezin dute 18.000 €-tik gorakoak izan. Kolektibo horiez gainera, ordura arte honako kolektibo hauek ari ziren laguntzak jasotzen: urtean 18.000 eurotik beherako urteko diru-sarrerak dituzten pentsiodunak; prestazio ekonomikorik gabeko langabe-egoeran dauden pertsonak; eta egoitza-egoera irregularrean dauden etorkinak.

Gaur Gobernu Kontseiluak Jon Darpón Osasun sailburuak proposatuta onetsi duen Dekretuak, orain, jatorrizko testuaren terminologia 7/2018 Errege Lege Dekretuak Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko Legean sartutako aldaketara egokitu du; horrela ezartzen du osasuna babesteko eta osasun-arretarako eskubidearen titular, batetik, Espainiako nazionalitatea duten pertsona guztiak eta beren bizilekua Espainiako lurraldean finkatuta duten atzerriko pertsona guztiak direla, eta, bestetik, Espainiako estatuan egoiliar gisa erregistratuta ez dauden eta baimenduta ez dauden atzerritarrak direla, biak ere baldintza beretan.

Araudiaren aldaketa hori ezinbestekoa da, ahultasun-egoera dela eta, koordainketa farmazeutikoak ezarritako kostu gehigarriari aurre egin ezin dieten pertsonetan tratamendu farmazeutikoak betetzen direla bermatzeko Eusko Jaurlaritzak 2013an ezarritako laguntzei eusteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 362.800 EURO ONARTU DITU KULTUR SORMENA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZETARA BIDERATUTA

- **Laguntza hauen bidez, literatura, zinemagintza, arte eszenikoak edo musika bezalako arlo ezberdinetako 54 kultura-proposamen babestu ziren iaz**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 362.800 euroko kontu-saila onartu du gaurko bere bileran, kultur sormena sustatzeko diru-laguntzetara bideratuta. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egin duen deialdi honek zazpi modalitate ezberdinetako proposamenak lagunduko ditu 2019an. Modalitate horien bitartez, 54 kultura-proposamen babestu ziren iaz.

Deialdi honen xedea da sorkuntza sustatzea kulturgintzaren arlo ezberdinetan, bai eta sortzaileen ibilbidea erraztea ere. Bere aurrekontua handitzeaz gain, deialdiak zenbait aldaketa izan ditu azken urteotan, bi modalitate berri sartu izan baitira urte hauetan: 'gazteei zuzenduriko euskarazko literatura-testuak' eta 'euskarazko ipuin eta eleberri laburrak'.

Honela banatu da modalitate bakoitzerako aurreikusi den zuzkidura:

- Antzerki-testuak: 52.000 euro.
- Zinema-gidoiak: 104.000 euro.
- Musika-lanak sortzea: 50.000 euro.
- Proiektu eta prototipoen atariko diseinuak (Ikertu): 48.000 euro.
- Gazteei zuzenduriko euskarazko literatura-testuak: 40.000 euro.
- Euskarazko ipuin eta eleberri laburrak: 40.000 euro.
- Koreografiak sortzea: 28.800.

Iragan 2018n egindako azken deialdian emandako laguntzak ondokoak izan ziren: 8 laguntza antzerki-testuak sortzeko; beste 8 gidoiak idazteko; 7 diru-laguntza musika-lanak idazteko; 12 laguntza atariko diseinuak sortzeko; 5 laguntza eman ziren gazteei zuzenduriko euskarazko literatura-testuak idazteko; beste 5 euskarazko ipuinak eta eleberri laburrak idazteko; eta, azkenik, 9 laguntza koreografiak sortzeko.

Segurtasuna

JENDAUURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN EUSKADIKO LEHENENGO ERREGELAMENDUA ONARTU DA

Gobernu Bilerak, Segurtasun Sailak eskatuta, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren lehenengo erregelamendua onartu du, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen segurtasun juridikoa areagotzeko, lege horretako aginduak zehaztuz.

Egingo den erregelamenduak lagundu behar du jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak gauzaten direnean eraginpeko pertsonen segurtasuna bermatzen, erabiltzaileen eta hirugarrenen eskubideak errespetatzen eta aisiarako eskubidea eta herritarrek dituzten gainerako eskubideak era baketsuan bateratzen.

Laburbilduta, erregelamenduak lortu nahi du:

- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren araudiaren oinarritzko alderdiak arautzea
- Ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztea
- Establezimenduetan segurtasun-neurriak eta autobabeserako araudia ezartzea
- Adingabeei arreta berezia eskaintzea
- Eta udalekin koordinatzea

Erregelamenduaren bidez lege-agindua osatzen da legeak berak erregelamendu bidezko garapena eskatzen duen kasuetan.

Horrela, aldatu egiten da jardueren eta establezimenduen katalogoa, sailkapena balioaniztunagoa eta malguagoa eta, aldi berean, deskribatzaileagoa izan dadin. Esate baterako, 98 lokal-motak (ikuskizunetako 38 eta jolas-jarduerako 60) 10era murriztu dira.

Erregelamenduaren bidez jarduerak eta ikuskizunak egiteko lekuetan egituren sendotasunari eta higieneari buruz eska daitezkeen baldintzak zehazten dira, bai eta ikuskizunetan eta jolas-jardueretan egoteko eta onartzeko baldintzak ere, eta arreta berezia eskaintzen zaie adingabeen babesari eta ekitaldietako bizikidetzak baketsuari eta erosotasunari buruzko beste baldintza batzuei, eta ekitaldi jakin batzuei jendea onartzeko, segurtasuneko eta akomodazioko kontrol-zerbitzuak ezartzen dizkie, horien ezaugarriak eta edukiera kontuan hartuta.

Sarrerak saltzea

Dekretuaren kapitulu batean sarreren salmenta arautzen da, eta, bereziki, azken urteotan gora egin duen Internet bidezko salmenta. Erregelamenduan

argi eta garbi zehazten da zer den zuzeneko salmenta eta zer den komisiadun salmenta, eta azken honen kasuan mugak jartzen dira eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimenarekin egin beharko da. Era horretara, lortu nahi da segurtasunik eza saihestea eta sarrerak garestiago birsaltzea eragozte, legez berariaz debekatuta baitago hori egitea.

Era berean, ezartzen da sarreraren edo abonamenduaren prezioa ezingo dela ezberdina izan erabiltzaileen jatorria edo jaiolekua, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela-eta edo erabiltzaileen bestelako egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta.

Adingabeak babestea

Jendea onartzeko eta egoteko baldintzen kapituluaren barruan, testu arautzailean haurrak eta gazteak babesteko atal bat dago.

Legean ikuskizun eta jolas-jardueretara sartzeko ezarrita dauden mugez gainera, dekretuan ikuskizunak eta jolas-jarduerak sailkatzeko jarraibideak ematen dira, adingabeak horietara sartzeko gomendioak zehaztuta.

Jendea onartzeko zerbitzuko langileak

Onartutako erregelamenduak jendea onartzeko zerbitzuko langileen irudia arautzen du, eta horien eginkizunak zehazteaz gainera segurtasun-langileen eginkizunetatik bereizten ditu.

Araudiak ezartzen du jendea onartzeko zerbitzuko langileek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako gaikuntza jakina izan behar dutela eginkizun horiek betetzeko.

Gaikuntza hori lortu ahal izateko, Zuzendaritzak EHAA-n argitaratutako ebazpen baten bidez arautuko ditu proba teorikoen, praktikoen eta psikoteknikoen moduluak, bai eta horien edukia eta aldizkakotasuna ere.

Horrez gainera, gaikuntza espezifikoa lortu duten pertsonen erregistroa sortuko da ikuskizunen arloan eskumenak dituzten gainerako administrazioekiko elkarreragina errazteko.

Bestalde, erregelamenduan jaso da jendea onartzeko zerbitzuko langileek, dekretua indarrean jartzen denean, lan hori egiten jarraitu ahal izango dutela gaikuntza izan gabe, baina gaikuntzaren baldintza hori jendea onartzeko zerbitzuko langileak gaitzeko lehenengo deialdia egiten denetik urtebeteko epean lortu beharko dute.

Zehapenen erregistroa

Dekretuak establezimenduen eta jardueraren ikuskapena eta kontrola ere arautzen ditu, eta zehapenen erregistroa sortzen du gaian eskumenak dituzten udaletako eta autonomia-erkidegoko agintariak ezarritako zehapenak jasotzeko, esate baterako, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legean

tipifikatutako arauak berriz hautsi diren baloratzeko. Erregistroa Eusko Jaurlaritzan ikuskizunen arloko eskumena duen zuzendaritzaren mende egongo da.

Era berean, arauak hautsi dituzten erabiltzaileek eta ikusleek zehapen arinak jaso ordez berriro hezteko neurriak borondatez betetzea onar dezakete, eta erregelamenduan berriro hezteko neurri-mota horiek ere zehazten dira. Era horretara, planteatzen dira komunitatearen aldeko zerbitzuak edo heziketa-, prestakuntza- edo kultura-programetan edo antzekoetan parte hartzea, baina ezingo dira udaleko langileei edo horien mendeko enpresa edo erakundeei dagozkien lanak izan.

Segurtasuna

EUSKO JAULARITZAK ERTZAINZAKO HAUTSKUNDE SINDIKALAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUAREN BIGARREN ALDAKETA ONARTU DU

Gobernu Bilerak gaur onartu du Ertzaintzako hauteskunde sindikalak arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dekretua. Aldaketa Ertzaintzaren Kontseiluan eta negoziazio-mahaian sindikatuekin lortutako akordioaren emaitza da, eta 1993ko arauketa eguneratzen du, Polizia Kidegoan hauteskunde sindikalen prozesuak hobeto kudeatzeko.

Ertzaintzako pertsonalaren lan-baldintzak erabakitzeko ordezkariak eta parte-hartzea gainerako funtzionarioen antzekoak dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legeak ordezkariak maila eta modalitate ezberdinak ezartzen ditu (ordezkariak; sindikatuetakoko delegatuak eta Ertzaintzaren Kontseiluko ordezkariak), eta horien kuantifikazioa, identifikazioa eta izendapena hauteskunde-audientziaren bidez egiten da.

Aldaketak 2017ko azken hauteskunde sindikaletako Hauteskunde Batzordeak, hauteskunde-prozesuen kudeaketa hobetzeko asmoz, egindako proposamenen eta ezarritako irizpideen arabera osatzen du arauketa.

Horretarako, hauteskunde prozesuari dagozkion publizitate moduak berrikusten ditu, hautagaitzetako partaideen eta hautatuen izenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzearena kentzeko, gainerako langile publikoen erregimenera hurbilduz, hauek ez direlako EHAAan argitaratzen.

Aurretik zegoen arauketa murrizta zenez, hauteskunde-batzordeek jada finkatuta zeuden aplikazio-irizpideak sartu behar izan zituzten (eta orain arauan jaso dira) honako arlo hauetan: hautagai-zerrenda bakoitzeko pertsona-kopurua eta horien ordezkariak; erroldak; hauteskunde-kanpaina; hauteskunde-propaganda egiteko lekuak eta guneak; Hauteskunde Batzordearen eginkizunak eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako kideenak, batzordeari laguntzeko lanetan; boto baliogabearen eta boto zuriaren arteko ezberdintasuna, etab.

Botoa aldeztu aurretik emateko eskubidearen arauketa eguneratzen da, eta eskaera egiteko prozedura argitzen eta sinplifikatzen da, botazioa berme osoz egiteko.

Arauketaren arabera, hautesleek Hauteskunde Batzordeak zehaztutako egunetik aurrera eman ahal izango dute botoa, hautagai-zerrendak aurkeztu ondoren, eta hauteskundeetarako adierazitako eguna baino bi egun lehenagora arte. Horretarako, eskubide hori gauzatzeko eskaera egin behar da. Behin egiaztatu ondoren hauteslea erroldan dagoela, errolda-ziurtagiria eta

aurkeztutako hautagai-zerrenda guztien boto-paperak emango zaizkio, bozketako gutun-azalarekin batera. Horren ondoren, botoa eman ahal izango du, eta, horretarako, boto-papera gutun-azalean sartuko du, eta gutun-azal hori beste gutun-azal handiago batean NANaren fotokopiarekin eta errolda-ziurtagiriarekin batera, eta bere hauteskunde-mahaira bidaliko du.

Bestalde, arauditik kendu egin da erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak izendatzeko prozedura, jada indargabetuta zegoena Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bigarren aldaketaren abenduaren 1eko 6/2006 Legean.

Onartutako dekretuak Negoziazio Mahaian 2018ko ekainaren 26an erakunde sindikalekin adostutakoa jaso du, eta 2018ko uztailaren 16an egindako Ertzaintzaren Kontseiluan gehiengo sindikalak emandako aldeko irizpena eta Aholku Batzorde Juridikoaren aldeko txostena ditu.

ITSAS SALBAMENDUKO ONTZI BATEN ERABILERA GURUTZE GORRIARI DOHAINIK LAGATZEKO BAIMENA EMAN DA

Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta, baimena eman du Itsas salbamenduko *Ogoño I* ontziaren erabilera Euskadiko Gurutze Gorriari dohainik lagatzeko, Euskadiko Itsasoko Gurutze Gorriak bakarrik erabil dezan.

Baimena 10 urtean lagatzeko da, eta 10 urte horiek luza daitezke. Ontzia eraiki berria eta azken belaunaldikoa da, eta Segurtasun Sailak 186.000 euroko inbertsioa egin du erosi eta hornitzeko.

Presidencia

EL GOBIERNO CONSTATA EL ALTO GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LAS INICIATIVAS PREVISTAS EN EL PLAN DE CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS PARA 2018

- **El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el balance de gestión y ejecución del Plan en 2018 y los principales retos para este año**

El Consejo de Gobierno ha conocido hoy el Informe anual de seguimiento del Plan de Convivencia y Derechos Humanos 2017-2020 del Gobierno Vasco, que recoge el balance de la gestión y ejecución en 2018 de las iniciativas que se contemplan en el Plan, así como los principales retos para este año, 2019.

En concreto, de las 15 iniciativas de las que se compone el Plan, 12 presentan un grado de cumplimiento del 100% de los compromisos previstos para 2018. Las tres iniciativas restantes presentan un grado de cumplimiento del 80 % debido a ajustes de calendario con otras instituciones o entidades. Cabe destacar, que todas las acciones que han sido cumplidas al 100% son aquellas que más directamente dependen de la acción de la Secretaría de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación. En este sentido, el grado de cumplimiento del Plan merece una buena valoración por parte del Gobierno Vasco.

PRINCIPALES RETOS PARA 2019

De cara a este año y teniendo en cuenta la coyuntura sociopolítica vasca, el programa de actuación del Plan define con precisión las actuaciones que deben ser abordadas de cara a afrontar los siguientes retos prioritarios:

1. Tras la materialización de la disolución unilateral, efectiva y definitiva de ETA, un eje de actuación estratégico es **seguir promoviendo, a pesar de las dificultades y resistencias, un proceso compartido de reflexión crítica** sobre la injusticia del daño causado por las violaciones de derechos humanos provocadas por el terrorismo y la violencia.
2. **Continuar profundizando en los ámbitos de diálogo, cooperación y acuerdo con las víctimas del terrorismo.**
3. **Continuar promoviendo el más amplio consenso posible en el impulso de las políticas públicas de memoria** a través del programa de actuación de Gogora y del Consejo de Dirección de este instituto,
4. **Desarrollar la Ley 12/2016 de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos**, una vez se hayan aprobado en el Parlamento Vasco los cambios en su articulado acordados con el Gobierno español para el desistimiento en el Recurso de Inconstitucionalidad.

5. Promover acuerdos con el Gobierno español, el Gobierno francés y los grupos parlamentarios para **favorecer una nueva orientación de la política penitenciaria** en materia de acercamiento y respuestas humanitarias, así como para consensuar las bases que permitan desarrollar legalmente políticas activas de reinserción social.

6. Poner en marcha las iniciativas orientadas a responder a los retos emergentes de la convivencia. Entre otras:

- La respuesta a la crisis humanitaria que sufren las personas refugiadas,
- El impulso al Pacto Social Vasco para la Migración,
